

## ADMINISTRAZIO-KONTRATUAK

1. ADMINISTRAZIOAREN NEGOZIO-JARDUERA
2. SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUAK: OINARRIAK
3. LEGEDI APLIKAGARRIA
4. KONTRATUEN LEGEAREN APLIKAZIO EREMUA
5. KONTRATATZEKO GAITASUNA
6. KONTRATUAK ESLEITZEKO PROZEDURAK
  - 6.1. Kontratuak esleitzeko prozedurak
    - a) Prozedura irekia
    - b) Prozedura mugatua
    - c) Prozedura negoziatua
    - d) Lehia elkarrizketatua
    - e) Proiektu-lehia
    - f) Esparru-hitzaermenak
    - g) Eskurapen-sistema dinamikoak
  - 6.2. Interesdunen proposamenak
  - 6.3. Esleipenduna hautatzea
    - a) Irizpideak
    - b) Eskaintzen sailkapena eta kontratuaren esleipena
    - c) Enkante elektronikoa
  - 6.4. Kontratua formalizatzea
7. ADMINISTRAZIO KONTRATUAK ETA ZUZENBIDE PRIBATUKO KONTRATUAK
8. PRESTATZEKO EGINTZAK AURKATZEA ETA KAUTELA NEURRIAK HARTZEA
  - 8.1. Errekurtsu berezia kontratazio eremuan
  - 8.2. Kautela-neurriak
9. ADMINISTRAZIO KONTRATUAK BETEARAZTEA
  - 9.1. Arriskua eta zortez printzipioa eta bere salbuespenak
  - 9.2. Betearazpen akastuna eta kontratistaren atzerapena
  - 9.3. Prezioa ordaintzea
  - 9.4. Hirugarrenen kalte-ordainak ordaintzea
  - 9.5. Administrazioaren ahalmenak
    - a) Kontratuak aldatzea
    - b) Kontratuaren finantza-oreka

### 1. ADMINISTRAZIOAREN NEGOZIO-JARDUERA

Administrazioak agintaritzako erabakiak hartzeaz gain (kontratuak), interes publikoari atxikitako helburuei heldu ahal dizkie itunak, kontratuak eta hitzaermenak sinatuz. Horrek esan nahi du beste subjektu batzuekin borondate adostasun batera iristen dela xede haiek eskuratzeko asmoz. Betidanik, Administrazioak norbanakoen laguntza behar izan du, ondasunak erdietsi, zerbitzuak eman edo lanak burutu ahal izateko, beharrezko bitartekorik ez baitzeukan. Egun Administrazioaren negozio-jarduerak garrantzi handia du beren erabakiak legitimitate handiagoa eramaten duelako. Ez da nahikoa izaten egintzak eman eta betearazteko ahalmenak legeak berak aitortzea, baizik eta haiek zuzentzen zaizkien herritarrek onartu behar dituzte. Zuzenbide anglosaxoiaren arabera, “*government by contract*” esaldia erabili ohi da agintzeko bide berria adierazteko.

Hala ere, kontratuen garrantziak administrazioaren eraginkortasunean dauka bere jatorria. Adituen arabera, Administrazio jarduera eraginkorragoa izango da, agintaritzak ahalik eta gatazka gutxienei aurre egin behar badie. Hori gertatzen da jarduketak aurretiaz hitzaermenekoak badira, herritarren onarpenean oinarrituz. Bestalde, gero eta gehiago Administrazioak lanak eta erantzukizunak saihestu nahi izaten ditu eta beste norbanakoei transferitzen dizkie, izan ere, zeharkako kudeaketa sortzen du eta pertsona fisiko edo juridiko bat kontratatzen du zerbitzu publikoak eskaintzeko. Gainera, gaur egun biderkatu egin dira ikuskatze eta auditoriazko jarduerak, eta Administrazioak ez du hainbeste baliabide horiek burutu ahal izateko. Horregatik,

beste norbanako batzuen laguntza behar du eta enpresa pribatuak kontratatzen ditu, funtzio publikoak diren arren.

Administrazio negozio jarduerak bide ezberdinak dakartza, negoziazio informaletatik kontratuak sinatzera. Honako hauek laburtu egin daitezke:

a) Erabakia hartu aurretik negoziazio informalak aurrera eraman ditzake Administrazioak. Batzuetan, Administrazio prozedura izapide bat baino ez da, funtsezko akordioak ebatzita baitaude. Negoziaketa informalak Administrazioari jarduteko era azkarra eta malguagoa ematen dio, nahiz eta arriskuak ere badakartza, esaterako, kontaktuak eta elkarrizketak isilpean burutzen direnean.

b) Adostasunak beti ez dira lotesleak, programatikoak baizik. Gobernuak gizarteko erakundeekin konpromisoak hartzen dituzte, jarduera mota bat aurrera eraman edo ekimen ezberdinak garatzeko. Adibidez, enpresari eta sindikatuekin sinatutako akordioak legegintzarako proiektu bihur daitezke. Demokrazia korporatiboari dagokion ereduaren islak dira akordio horiek.

c) Administrazioak berak alde bakarreko erabakia hartu beharrean, beste norbanakoekin ituna edo hori prestatzeko akordioa sinatzen du. Administrazio prozeduren adostutako bukaera da haren adibidea. Ondarezko erantzukizunari lotutako prozeduretan Administrazioak eta kaltetuak kalte ordainaren kopuruaren gaineko hitzarmenera iristen diren kasuetan, Administrazio prozedurari lotutako izapideak ez dituzte burutzen eta Administrazioak ebazpena baino ez du eman behar. Bestalde, hitzarmen horietan bi alderdiek, norbanakoak eta agintaritzak bete beharko duten baldintzak jasotzen dira, esaterako nahitaezko desjabetzeari dagokion hitzarmenetan. Beraiek ez dituzte sinatu behar, baina Administrazioak proposatzen ditu xedek modu arinenean eskuratzeko.

d) Laguntza hitzarmenei dagokienez, hainbat Administraziok sinatzen dute gai ezberdinetan elkarri laguntza emateko xedez. Batzuk arauak beraiek aurreikusten dituzte, esaterako, hezkuntza sortzen diren itunak. Kasu honetan zentro pribatuekin onartzen dira funts publikoak ematen zaizkie derrigorrezko hezkuntza mailak eskaintzen dituztelako. Gehienetan pertsonak eta administrazioek finantza gehiago behar dituzte interes publikoko helburua lortzeko. Administrazioak zabaltasun handiz joka dezake, beti ere jarduketak Legeen barruan mugatzen badira. Itun hauei ez zaie eremu publikoko kontratuei dagokien legedia aplikatzen. Beraiek jasotako baldintzak eta ordezkotasunez Zuzenbide publiko edo pribatuko araubideei kasu egin behar diete alderdiek.

e) Azkenik, Legeak sektore publikoko kontratuak arautzen ditu. Zuzenbide pribatuaren arabera egin daitezkeen bezalako negoziak dira, baina ezberdintasuna da alderdien artean Administrazioa edo eremu publikoko beste erakunde bat daudela. Kontratu hauek izango dira aztertzeak hurrengo orrialdeetan. Kasu horietan itunen askatasuna izango aplikagarria baina muga batzuekin: itunek ezin izango dute jo interes publikoa, ordenamendu juridikoa eta Administrazio onaren printzipioen aurka. Aurrerago azalduko den legez, Administrazioak ere izango ditu ahalmenak kontratuak mugatu eta betearazteko, uste ona eta interes publikoa kontuan hartuz.

## 2. SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUAK: OINARRIAK

Kontratazio publikoak garrantzi handia hartu du azken garaian, tamaina handiko merkatua eragin sortu duelako, barne eremuan zein nazioarteko eremuan. Globalizazio ekonomikoak eta nazioarteko merkataritzaren hazkundeak, lehia askean oinarrituta, arau juridiko berriak, Estatu ezberdinei aplikatu beharrekoak, onartzera behartu dituzte agintaritzak publikoei. Berdin dio zein lurraldetan finkatzen den enpresa bat, edo non ematen dituen zerbitzuak. Nazioarteko esparruan nagusitzen den konkurrentzia dela eta, saihestekoa da estatuek barneko enpresak baino ez dituztela kontratatzen.

Munduko Merkatal Erakundeak lehia askea garatzen duen arauak onartu ditu, eta Europar Batasunak ere parte hartu du arau horiek ezarri eta adostasunetara heltzeko. Horrela, hark kontratazio publikoari dagokion zuzenbide jorratu du, merkatu erkidea bultzatzeko asmoz. Europar Batasunak onartutako arauak gardentasuna, berdintasuna eta konkurrentzia ezartzea dute xede, eta erakunde horiei dagokien estutu guztiek aplikatu behar dituzte. Ikusiko den legez, nobedade nagusia da entitate publiko batzuek ere arau berri horiek bete behar dituztela, zenbait kopuru gainditzen badute, eta beste baldintza batzuei kasu egiten bazaie.

Honako hauek dira Europar Batasunean aplikatu behar ziren araurik garrantzitsuenak: 89/665/CEE Direktiba, errekursoak aurkezteko prozedurak arautzen dituen; 93/36/CEE, hornidura kontratuari buruzkoa. 93/37, lan kontratuei dagokien araubidea; 92/13/CEE eta 93/38/CEE, ura, energia, garraiobideak eta telekomunikazioen inguruko kontratuak. Gaur egun, panorama asko aldatu da, 2004/17/CE eta 2004/18/CE Direktibak onartu ondoren. Lehen aipatutakoak indargabetzen ditu eta araudi berria txertatzen dute. Kontratu mota berriak ezartzen dituzte eta prozedura berriak erabiltzera bultzatzen dute, esaterako, kontratu elektronikoak. Errekursoak aurkezteko prozedurak arautzen dituen Direktiba 2007/66/CE Direktibak aldatu du, Europar Batasuneko araudia indartzeko nahian. Arau horiek guztiek behartu dituzte estatuak Administrazio Zuzenbideari dagokion gai honetako arau berriak eta zehatzak txertatzera. Horregatik, Espainiako estatuan, adibidez, 1995ean eta 2000an Administrazio kontratuen legediari berrikuntzak egin behar izan zizkioten. Horrez gain, Europar Erkidegoetako Justizia Auzitegiak kasuz kasu kontratazioaren printzipioak garatu ditu, indarrean dagoen araudiari osatuz (2003ko urriak 16ko eta 2005ko urtarrilak 13ko EEJAE).

Kontratazioaren printzipio publiko batzuk ere aplikatzen dira, kontratuaren kopurua kontuan hartu gabe, nazionaltasuna dela eta ezberdinkeria saihestekotan. Kasu horretan, kontratu mota guztiei Europar Batasuneko araudia aplikatzen zaie (2005ko uztailak 21eko EEJAE, *Coname*). Europar Batzordeak, kontratazioaren araudia aplikatzen ez zaien kontratuei buruz, honako hau adierazi du: gardentasun eta berdintasun printzipioak ezinbestekoak dira.

### 3. LEGEDI APLIKAGARRIA

Lehenik eta behin aipatu behar da estatu eremuan 2011/3 Legegintzarako Dekretua (SPKL) dela oinarritzkoa. Administrazio kontratuei dagokien araudia bateratzeko onartu zen xedapen hura. Europar Batasunak araudi berria onartu du gai honetan, hain zuzen, 2014/24 Direktibak 2004koa indargabetu du. Beraz, Estatuak Direktiba berri horri egokitu beharko dio barne ordenamendu juridikoari, lege berri bat onartuz. 2009/817 Errege Dekretuak Legegintzarako Dekretu hura osatu du partzialki. Legearen gainerako garapena 2001/1098 Errege Dekretua aplikatu behar da, nahiz eta 2000ko kontratuen legedia osatzen zuelako. Erregelamendu berria onartu ez arte, hura nagusitzen da Lege berriarekin bateragarria den gai eta xedapenetan. Estatuko legedia oinarritzkoa da, beraz Autonomia Erkidegoek legedi hori onartu dezakete.

Legedi berriak Estatuaren finantza sostengarriak erdiesteko xedea du, prozedura bizkorragoak bultzatzen ditu, diru publikoa modu eraginkorragoan kudeatzeko. Herri administrazioek, norbanako pribatuak kontratatzean, merituari eta berdintasunari lotutako irizpideak kontuan hartu beharko dituzte. Direktibak, bere zioen azalpenean adierazten du beste helburu bat izango litzatekeela ertaineko eta txikiko enpresei parte hartzeko aukera gehiago ematea. Halaber, segurtasun juridikoaren inguruko kontzeptu eta printzipioak argitu behar direla ulertzen du, eta, bide batez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak emandako interpretazioak legedian txertatu behar dira. Pertsona ezgaituen aldeko eskubideak ziurtatzen saiatuko da, bereziki, hedabideak aukeratzeko, zehaztasun tekniko eta esleitzeko irizpideekin zerikusia duten bideak jasoz. Azkenik, Direktibak estatuei ahalmen gehiago ematen die zeharkako kontratazioa baztertzeko, zerbitzu publikoak edo interes ekonomikoko zerbitzu publikoak eman nahi baditu.

2011/3 Legegintzarako Dekretuak ura, energia, garraiobideak, telekomunikazioak eta posta zerbitzuei buruzko kontratuak arautzen ditu. Kasu hauetan, sektore publikoko erakundeak erabakitzen du kontratuak sinatzea edota enpresa pribatuek araubide hura bete behar dute, beti ere botere publikoek emandako eskubide bereziak edo esklusiboak dituztenean. Esparru hauetan ere Europar Batasunak Direktiba berria onartu du (2014/25). Esparru horiei aplikatzen zaie arau hau, telekomunikazioetan izan ezik, Administrazio kontratuari lotutako legedia aplikatu barik.

#### 4. KONTRATUEN LEGEAREN APLIKAZIO EREMUA

Ikuspegi subjektibo bati erreparatuta, Sektore Publikoko Kontratuaren Legeak ez duela arautzen, soilik eta zentzu hertsian, herri-administrazioen jarduna, hau da, prerrogatiba exorbitanteak dituzten pertsonena; izan ere, herri administrazioez gain, aintzat hartzen ditu sektore publikoko beste subjektu batzuk. Bestalde, ikuspegi objektibo batetik, esan behar da Sektore Publikoko Kontratuaren Legeko aplikazio-eremua ez dela “administrazio kontratueta” mugatzen, horiez gain, zuzenbide pribatuko kontratuak eta araubide harmonizatupeko kontratuak ere bere aplikazio-eremuan sartzen baitira.

Araubide orokorrean, Legeak ez du zerrenda batean adierazten zer pertsonari aplikatuko zaien Legea, eta interpretaziorako bide ematen duten kategoria juridiko batzuk ezarri ditu. Hiru subjektu-talde nabarmentzen ditu Legeak: a) Herri Administrazio zentzu hertsian; b) Botere esleitzzaileak; eta c) Sektore publikoko beste subjektu batzuk (SPKL 3.1 art.). Gogoratu behar da ere Enpresa publiko Erakundeak ez direla hartzen Herri Administrazioetat, baina botere esleitzzaileak izan daitezke (SPKL 3.3 art.).

Sektore publikoko entitateak dira botere esleitzzaileak, eta ezaugarri hauek dituzte:

- a) Izaera juridiko propioa dute, zuzenbide publikokoa edo pribatua.
- b) Interes orokorreko premiak asetzeko sortuak dira (ezin dute interes industrial edo komertzialik izan).
- c) Beste botere esleitzzailearen bat da haien jarduna finantzatzen duena, edo haien kudeaketa-lana kontrolatzen duena, edo haien administrazio-zuzendaritza, edo ikuskapen-organoko kideen erdia baino gehiago izendatzen dituen.

Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen (SPKL) aplikazio-mailak argitzeko bereizten dira hiru subjektu-talde horiek, eta, horren bestez, ñabardurak ñabardura, esan dezakegu Legea osorik aplikatzen zaiela Herri Administrazioei, Legearen aplikazio ertaina edo txikia egiten zaiela zentzu hertsian herri Administrazio ez diren esleitzzaileei, eta aplikazio hori minimoa dela herri-administrazio nahiz botere esleitzzaile ez diren sektore publikoko gainerako subjektuekiko. Adierazi dugun moduan, Sektore Publikoko Kontratuaren Legeak, Administrazio-kontratuak arautzeaz gain, zuzenbide pribatuko kontratuak eta araubide harmonizatupeko kontratuak arautzen ditu, azken horiek zati batean arautzen baditu ere.

a) Administrazio kontratuaren eremuan, obligazio-sorrera arautzeaz gain (kontratuaren prestaketa eta esleipendunaren hautaketa), obligazio harremanari aplikagarria zaion araubidea ezartzen du SPKLak (kontratuak betetzea, interpretatzea, aldatzea, amaitzea, suntsiaraztea edo baliogabetzea).

b) Araubide harmonizatupeko kontratuaren eta zuzenbide pribatuko kontratuaren alderdi hauek arautzen ditu SPKLak; a) Kontratuak prestatzeko prozedura; b) Kontratistak hautatzeko irizpideak; c) esleipena egiteko irizpideak.

Hiru subjektu-taldeen eta kontratu moten arteko harremanari erreparatuta, hau da SPKLtik ondorioztatzen den eskema doituena:

- Herri-administrazioak zentzu hertsian: administrazio-kontratuak, araubide harmonizatupeko kontratuak eta araubide harmonizatupekoak ez direnak eta zuzenbide pribatuko kontratuak.

- Botere esleitzailerak: Araubide harmonizatupeko kontratuak, zeinei SPKL aplikatzen zaien kontratuak prestatu eta esleitzeko alderdietan; araubide harmonizatupekoak ez diren kontratuak, zeinei Europako Erkidegoko printzipioak aplikatu behar zaizkien; eta zuzenbide pribatuko kontratuak.

- Sektore publikoko beste subjektu batzuk: zuzenbide pribatuko kontratuak.

Azkenik, aipatu behar da kontratu batzuei ez zaiela aplikatzen SPKL, besteak beste, funtzionario publikoekiko harremanak arautzen dituztenak; zerbitzu publikoari lotutako kontratuak, erabiltzaileek tarifa edo prezioa ordaindu behar dutenean; lankidetzaren itunak Estatuko Administrazioak sinatuta Autonomi Erkidegoekin, Gizarte Asegurantza, Toki Administrazio edo unibertsitateekin; Zuzenbide pribatuaren menpe dauden erakunde edo norbanako pribatuekin egindako hitzarmenak; beste lurralde edo estatuekiko sinatutako itunak; merkatal helburuak dauzkaten erakunde publiko edo pribatuekin eratutako itunak: arbitrajea eta kontziliazioari lotutako akordioak; finantza zerbitzuekin zerikusia duten kontratuak, baloreen edo finantza produktuen emisio, transferentzia eta salerosketa; herri jabaria erabiltzeko baimenak edota erakunde publikoak berak beste subjektu bati zerbitzuak eman edo salgaiak entregatzeko kontratuak. Azkeneko kasu honetan zuzenbide pribatua aplikatzen da, eta ezingo dituzte eraman kontratu tipikoen araudiak jasotzen duen prestazioak (SPKL 4.1 art.).

## 5. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Sektore publikoarekin kontratuak egiteko, jarduteko gaitasun osoa izan behar dute pertsona natural edo juridikoek. Hauek beren kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala egiaztatu behar dute eta, Legeak eskatzen duen kasuetan, sailkapen jakin bat izan behar dute. Horrez gain, kontratu-xedea betetzeko enpresari-gaikuntza egokia izan behar dute enpresariak.

a) **Kontratatzeko gaitasuna:** pertsona edo enpresa kontratatzaileak espainiarrak edo atzerritarak izan daitezke. Ezin da kontratuen esleipenean diskriminaziorik egin, ez Europar Batasuneko enpresa eta herritarrekiko, ezta Munduko Merkataritza Antolakundeko Kontratazio-hitzarmenak izenpetu dituzten estatuetakoko enpresa eta herritarrekiko. Europar Batasunekoak ez diren estatuetakoko naziotasuna duten kontratistek behar bezala egiaztatu behar dute Espainiako enpresek aukera dutela beren jatorriko estatuako kontratazio publikoetan parte hartzeko, eta partaidetza-baldintzak, funtsean, antzekoak direla bi herrialdeetan (SPKL 55.1 art.).

Banako profesional eta enpresek ez ezik, aldi baterako enpresa-elkarteekin ere kontrata dezake Administrazioak. Kontratuaren exekuzio-epe osoan izan behar du indarrean elkartean, eta enpresariak erantzukizun solidarioa izango dute administrazioarekiko edo erakunde kontratatzailearekiko (SPKL 59.2 art.).

b) **Kontratatzeko debekuak:** SPKLak arautu ditu kasu batzuk zeinetan enpresek ezinezko izango dute Administrazioarekin kontratatzea. Legeak honako egoera hau eragotzi nahi du: Administrazioek eta sektore publikoko gainerako subjektuak kontratuak egitea ondasun juridiko babestuak kaltetu dituzten enpresari edo eragile ekonomikoekin. Ondasun horietako batzuk dira, esaterako, bateraezintasun-erregimenpeko agintari eta zerbitzari publikoen ohorea, zintzotasuna edo objektibotasuna. Kontratatzeko debeku horiek urratzen badira, kontratuak baliogabeak izango dira.

Hona hemen debeku arrazoi horietako batzuk: kontratista izan nahi dutenek edo haien administratzaile edo ordezkariak eruduntasun-kondenak jaso izan zilegi ez den elkarteko kide izateagatik, nazioarteko merkataritza tratuetan ustelkeria delituak egiteagatik, eragimen-trafiko baliatzeagatik, funtzionario-eroskeriagatik, iruzurrak eta legearen aurkako ordain-arazpenak

egiteagatik, ogasun publikoaren eta gizarte-asegurantzaren aurkako delituak egiteagatik, langileen eskubideen aurkako delituak egiteagatik, bidegabeko eralgitzeak eta errezibitze-delituak egiteagatik, besteak beste (SPKL 60 eta 61 art.).

c) **Enpresen kaudimena:** interes publikoa betetzeko, kontratistek alde aurretik bermatu behar dute, gaitasun juridikoa ez ezik, behar besteko gaitasun ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala dutela hartuko dituzten obligazioei aurre egiteko. Kaudimen ekonomikoa egiaztatzeke, finantza-erakundeen txostenak, urteko kontuak edo negozio zifren deklarazioak aurkeztu behar dira; eta kaudimen teknikoa egiaztatzeke, enpresaren lanbide eskarmentua eta haren langileen titulu akademikoak, enpresak eskura dituen giza baliabideak eta baliabide materialak, eta bestelako ziurtagiri, deklarazio, homologazio eta kontrolak. Lizitazio iragarkian eta kontratu-agirian zehaztu behar dira gutxienezko kaudimen-baldintzak eta baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeke dokumentazioa. Baldintza horiek bat etorri behar dute kontratuaren xedearekin eta xede horrekiko proportzionalak izan behar dute (SPKL 62, 63 eta 64 art.).

Herri Administrazioekin 500.000 euro edo gehiagoko obrak, Espainiako enpresek sailkapen jakin eskuratu dutela egiaztatu behar dute alde aurretik. Kontratu-mota jakin batzuetan lizitatzailen kaudimena egiaztatzeke administrazio-formula bat da sailkapena (SPKL 65.1 art.). Erregistro batean inskribatzen dira sailkapena lortu duten enpresak, eta horrek erraztu egiten dio Administrazioari kontratuak behar bezala betetzeko. Halaber, lizitatzailari erraztu egiten dio lanak. Hura behin eskuratuta, hark ez baititu etengabe aurkeztu behar agiri berak lizitatzailak aukeratu eta kontratuak esleitzeko deialdi ugarran. Dena dela, hainbat kontratutan ez dira sailkapenak eskatzen, eta sailkapen egintzak bakoitzak zehazten du zer kontratuetarako balio duen aitortutako sailkapenak. Zerbitzu kontratuetarako deialdiak gutxienezko irizpideak ezarriko ditu, kaudimen tekniko edo ekonomikoa bermatzeko. Pertsona juridikoen elkarteek bere sailkapen propioa eska dezakete, nahiz eta bakarka ezin dituzten irizpideak bete (SPKL 67.3 art.). Autonomi Erkidegoek sailkapenak era ditzakete estatuek jarraitutako irizpideei kasu egiten badiete (SPKL 83.1 art.).

Erabat deusezak izango dira gaitasunik edo kaudimenik gabeko pertsonen alde egindako esleipenak eta kontratatzeke debekuak dituzten pertsonen alde egindakoak [SKPL 32.1 b) art.].

d) **Bermeak:** obra kontratu guztietan eta obra publikoen emakida kontratuetan, kontratistek berme bat eratu behar dute kontratazio-organoaren aurrean. Legeak arautzen du berme orokorra esleipen-zenbatekoaren %5 izango dela (SPKL 95.1 art.); hala ere, zenbait kasu berezitan berme osagarri bat era daiteke, kontratuaren prezioaren %10era bitartekoa. Enpresariak berme orokor bat era dezake herri-administrazio batekin edo kontratazio-organo batekin edo batzuekin egingo dituen kontratuak betetzetik eratortzen diren erantzukizunak bermatzeko (SPKL 95.2 art.).

Administrazioak ere behin-behineko berme bat eratzea eska diezaieke lizitatzailari, bermatzeko lizitatzailak beren eskaintzei eutsiko diotela, kontratua esleitu arte. Berme horren zenbatekoa ezin du izan kontratuaren aurrekontuaren ehuneko hirukoa baino handiagoa (SPKL 103.2 art.).

Bermeak eskudirutan edo balore publiko zein pribatutan era daitezke, baita banku-abalen edo kauzio-aseguruen bidez ere. Salbuespenez, prezioaren zati bat atxikiz eman daiteke bermea. Bermeak itzultzen edo ezeztatzen dira kontratuak behar bezala betetzen direnean, edo, behin-behineko bermeen kasuan, kontratua behin betiko esleitzeko erabakia hartzen denean edo, esleipendunaren jardunari erreparatuta, hark behin betiko bermea eratzen duenean. Enpresek, bidezko arrazoirik gabe, proposamenak erretiratzen badituzte, atxiki egingo zaie behin-behineko bermea (SPKL 84. art.).

## 6. KONTRATUAK ESLEITZEKO PROZEDURAK

Kontratuak esleitzeko prozeduretan bete behar dira, osoro eta zentzurik zabalenean, printzipio hauek: publizitatea eta gardentasuna, berdintasuna, diskriminaziorik eza eta lehia askea. SPKL saiatu da printzipio horiek bermatzen eta, horren harian, esleipen-formula berriak ezarri ditu, aurrekoak baino azkarragoak eta eraginkorragoak. Lege hark bitarteko informatikoak erabiltzea bultzatzen du eskaintzak aurkezteko eta enkante informatikoak sustatzen ditu. Horrez gain, hautatze bide berriak ekarri ditu: lehia elkarriketatua, sistema dinamikoa edo esparru-hitzarmenak adostea.

Legeak publizitate-erregimen berri bat ezarri du sektore publikoko subjektuen web-orri instituzionaletan iragartzen dena eta kontratatzaile profila deritzona. Publizitate horrek, baldintza batzuk ematen badira, aldizkari edo egunkari ofizialen publizitatea ordeztu du. Sektore publikoko organo edo subjektu baten kontratu-jarduerak interneten iragartzea da "kontratatazaila profila". Legeak ez du hedapen-bide hori erabiltzera behartzen, borondatezkoa baita bide hori erabiltzea. Publizitate-formula hori erabiliz gero, sektore publikoko subjektuen web-orri instituzionaletan adierazi behar da profileraz sartzeko modua. Kontratazio-organoren jarduerari buruzko datu eta informazio ugari argitara daiteke kontratatzaile profilean: aurretiazko informazio-iragarkiak, ireki diren edo abian diren lizitazioak, hautaketa-prozesu horietako dokumentazioa, programatutako kontratazioak, esleituak izan diren kontratuak, balio gabetu diren prozedurak, etab.

### 6.1. Kontratuak esleitzeko prozedurak

Europako Legediak xedatzen duenari jarraituz, kontratuak esleitzeko prozesu bat baino gehiago bereizi eta arautzen ditu Sektore Publikoko Kontratuen Legeak. Esleipen prozedurak dira irekia, mugatua, negoziatua eta lehia elkarriketatua. Lehen biak arruntak dira eta azken biak apartekoak. Kontratazio-espeditente guztietan adierazi behar da zein prozedura erabili den. Adierazitako prozedurez gain, Legeak proiektu-lehia izenez adierazten ditu, kontratazioaren arrazionalizazio teknikoaren baitan, beste bi esleipen-modalitate; esparru-hitzarmenak eta eskurapen-sistema dinamikoak.

#### a) Prozedura irekia

Interesa duen enpresari orok aurkez dezake proposamen bat, eta ez da kontratubaldintzarik negoziatuko lizitatzailaekin. Lizitazio-deialdiaren iragarkia argitaratu behar du Administrazioak, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Autonomia-erkidegoetako edo probintzia administrazioetako aldizkarietan edota kontratazio-organoren kontratatzaile profilean. Proposamenak edo eskaintzak aurkezteko mugaegunari erreparatuta, SPKLak xedatzen dituen aurretiazko epeen barruan argitaratu behar dira iragarki horiek. Araubide harmonizatupeko kontratuak esleitu behar badira, iragarkiak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gain, Europar Batasunari Egunkari Ofizialean argitaratu behar dira (SPKL 157 art.).

#### b) Prozedura mugatua

- Proposamenak egiteko gonbidapenak egiten die Administrazioak enpresa batzuei (ezin dute bost baino gutxiago izan), prozeduran parte hartzea eskatu duten enpresen artean aukeratuta. Aukeraketa hori egiteko, kaudimen-irizpide objektiboei erreparatu behar die, eta irizpide horiek prozedura abiatzean argitaratu behar ditu (SPKL 162 art.).

- Iragarki hori Estatuko Aldizkari Ofizialean edo Autonomia-Erkidegoetako edo probintziako aldizkarietan argitaratu behar da, eta, prozedura irekiaren kasu berdinetan, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean. Eskaerak aurkezteko epea laburragoa da prozedura honetan (SPKL 164 art.).

- Prozeduran parte hartuko duten enpresak aukeratu ondoren, proposamenak egiteko gonbidapena egin behar die Administrazioak, eta ezartzen den epean aurkeztu behar dituzte enpresek beren proposamenak (SPKL 165 art.).

### **c) Prozedura negoziatua**

Zuzenean esleitzen zaio kontratua Administrazioak modu arrazoituan aukeratutako enpresari edo eskatzaileari. Erabaki hori hartu aurretik, kontsulta egin behar die zenbait hautagairi, eta prozedurak hala eskatzen badu, interesdun batekin edo batzuekin negoziatu behar ditu kontratu-baldintzak. Prozedura honen ezaugarri nagusia da kontratazioa zuzena dela eta ez dagoela egiazko lehiarik (SPKL 169. art.).

Prozedura hau ezohikoa da, eta Legeak kontratu bakoitzerako arautzen dituen egoeretan soilik erabil daiteke. Prozedura hau erabiltzen da, besteak beste, kontratua aldeztu aurretik esleitu ezin izan bada prozedura ireki edo mugatu bidez, kontratu-xedearen zehaztasun tekniko edo artistikoek kontratuak enpresaburu edo pertsona jakin bati esleitzeko premia badakarte, larrialdi-kasuetan, xede sekretua edo erreserbatua duten kontratuak, lehia-izapideak betez esleitutako beste kontratu baten prestazio osagarriak kontratatu behar badira, edo, azken buruan, zenbateko jakin bat, Legeak kontratu-mota bakoitzerako ezarria, iristen ez duten kontratuak esleitzeko (SPKL 154-159 art.).

SPKLak igo egin ditu prozedura hau erabiltzeko aukera ematen duten muga-zenbatekoak (170-174. art.):

- Miloi bat eurokoa da muga obra-kontratuak.

- Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak, muga 500.000 eurokoa da lehen ezarpeneko gastuentzat, baldin eta kontratuak bost urtetik gorako iraupenik ez badute.

- 100.000 eurokoa gainerako kasuetan. Zenbateko horiek nahiko handiak dira eta, ondorioz, kontratu publikoen ehuneko handi bat esleitu daiteke lizitaziorik gabe.

- Bi modalitate daude: aurrez publizitatea darabilena eta publizitaterik gabekoa. Europar Batasuneko Legediak agindutako kasuetan soilik erabiltzen da aldeztu aurreko publizitatea prozedura negoziatuetan, baldin eta prozedura hori erabili behar bada prezioagatik. ; hau da, 60.000 eurotik gorakoa bada, edo obra-kontratuaren kasuan, 200.000 eurotik gorakoa bada. Prozedura Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean edo beste aldizkari ofizial batzuetan argitaratzen da, prozedura mugatuan egiten den moduan. Baliatuko diren hautatze-irizpideak adierazi behar ditu aldizkari ofizialeko iragarkiak. Interesdun orok egin ditzakete eskaintzak, eta, ondoren, Administrazioak haiekin negoziatuko du, edo prozeduraren ondorengo faseetan, eskaintzaileen kopurua murriztuko du, harik eta eskaintza abantailatsua aukeratu arte (SPKL 177 art.).

Publizitate gabeko prozedura negoziatuetan, Administrazioak askatasun handiz eta zuzenean aukeratzen du kontratista; hala ere, posiblea den heinean, eskaintzak egiteko eskatu behar die, gutxienez hiru enpresari. Modalitate honetan, beti jaso behar da kontratazio-espedituan zer gonbidapen egin diren, zer eskaintza jaso diren eta zer arrazoi izan diren haiek onartu edo baztertzeko.

### **d) Lehia elkarrizketatua**

Zailtasun handiko kontratuak esleitzeko sortua, eta, horren bidez, sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzakontratuak bultzatu nahi dira. Prozeduraren hasieran, botere esleitzzaileek beren kontratazio-premiak jakinarazten dituzte azalpen-agiri batean. Horren ondoren, elkarrizketa-prozesu bat abiatzen du prozeduran parte hartu nahi duten enprekin. Elkarrizketa horien helburua da Administrazioaren kontratazio-premia horiei erantzuteko



irtenbide bat edo batzuk lantzea. Azkenik, irtenbide-proposamen horiek baliatuko dituzte kontratuaren esleipendun izateko hautagai diren enpresek beren eskaintzak oinarritzeko (SPKL 180. art.).

- Prozeduran parte hartzera gonbidatuko zaien enpresen kopurua mugatu nahi badu Administrazioak, gutxienez hiru enpresa gonbidatu behar ditu.

- Elkarrizketa-prozesu horretan konfidentzialtasunez landu behar dira parte-hartzaileek egindako proposamenak.

- Proposatzen zaizkion irtenbideak konpara ditzake Administrazioak, eta, prozeduraren hurrengo faseetan, proposamenak bazter ditzake, harik eta bere premiei hobekien erantzuten dien irtenbidea zehazteko moduan den arte.

- Irtenbidea zehaztean, irtenbide horretan oinarritutako eskaintza bat egitera gonbidatuko ditu prozeduran parte hartu duten enpresak. Ikuspegi ekonomikotik abantailatuena den eskaintzari erreparatuta ebatziko da prozedura, baina, horretarako, eskaintako prezioari begiratzeaz gain, aurrez erabaki diren esleipen-irizpideei erreparatuko zaie (SPKL 167.1 art.).

#### **e) Proiektu-lehia**

Planoak edo proiektuak eskuratzeko prozedura bat da, eta epai-mahai bat izaten da aukeratuko dituen. Jardun-esparru hauetan erabiltzen da: hirigintza, arkitektura, ingeniari-tza eta datuen prozesatzea. Administrazioak primaren bat edo ordainketaren bat hitzar dezake prozedura horretan parte hartzeagatik (SPKL 184.1 art.).

- Prozedura irekien moduan argitaratu behar dira lehiaketaren oinarriak.

- Ebatziko duen epai-mahaia pertsona fisiko independenteek osatzen dute. Beharrezkoa bada, kalifikazio profesional egokia izango dute pertsona horiek, eta autonomia osoz erabaki behar dute.

- Epai-mahaiak amaierako irizpen bat idatziko du, aurrez ezarritako esleipen irizpideak aintzat hartuta, eta esleipen proposamen bat egingo du. Arrazoitutako ebazpen baten bidez soilik ezets dezake kontratazio-organoak proposamen hori.

#### **f) Esparru-hitzarmenak**

Kontratista batekin edo batzuekin esparru-hitzarmenak adosteko aukera ematen dio SPKLak Administrazioari. Salbuespenezko kasu batzuetan izan ezik, hitzarmenek ezin dute lau urtetik gorako iraupenik izan. Hitzarmen horien baitan, Administrazioak kontratistekin hitzartuko du zein baldintza izango dituzten hitzarmen-epean kontratista horiei esleituko zaizkien kontratuek (SPKL 196-198 art.).

- Ezin da hitzarmen-esparruaren formula gehiegikeriaz erabili, eta hitzarmenek ezin dituzte lehia-baldintzak oztopatu, mugatu edo desitxuratu. Prozedura orokorrak (irekia edo mugatua) baliatuko dira kontratista edo kontratistak (gutxienez hiru, bat baino gehiago badira) aukeratzeko. Esparru-hitzarmenek, beraz, gerora egingo diren kontratu anitzak iragarri eta horien baldintzak zehazten dituzte; batik bat, haien prezioak eta kantitateak.

- Horrela jokatuta, Administrazioek ez dituzte kontratazio-prozedurak errepikatu behar antzeko xede edo helburuak dituzten kontratuak esleitzeko. Enpresari bat baino gehiago aukeratu badira eta esparru-hitzarmenetan bestelakorik adierazi ez bada, lizitazio berriak dei daitezke enpresari horien artean, eratorritako kontratuak esleitzeko (SPKL 198.4 art.).

### **g) Eskurapen-sistema dinamikoak**

Prozedura mugatuaren aldaera bat da, bitarteko elektronikoen bidez izapidetzen dena, eta oso baliagarria da, aurreko formularen moduan, kontratu-sailak esleitzeko: merkatuan erabilera arruntekoak izan eta eskuragarri dauden obrak, zerbitzuak eta hornidura sailean kontratatzeko (SPKL 199 art.).

- Administrazioak argitaratutako iragarkiak prozedura hau erabiliko dela adierazi behar du eta, prozedura hori irekita dagoen bitartean (lau urte gehienez), interesdun orok aurkez ditzakete klausula-agiriko eskakizunak eta aurreikuspenak beteko dituzten eskaintza indikatiboak, bitarteko elektronikoa erabilita (SPKL 184 art.).

- Lau urteko epe hura agorturik, lizitatuzaileari jakinarazi behar dio haren eskaintza ezetsia izan den ala eskurapen-sistema dinamikoan onartua izan den. Klausula-agiriak adierazitako kontratu espezifiko bakoitzerako, Administrazioak eskaintza konkretuak egitera gonbidatuko ditu sisteman onartutako lizitatuzaileak (soilik lizitatuzaile horiek), eta eskaintzarik onenari esleituko dio kontratua (SPKL 200-202 art.).

## **6.2. Interesdunen proposamenak**

Interesdunek administrazio-klausula zehatzen agiriak adierazitako ereduari jarraitu behar diote hura egiteko. Aparteko gutun-azal batean, honako alderdi hauek egiaztatzen dituzten agiriak erantsi behar dituzte (SPKL 146.1 art.):

- a) Eskaintza egilearen nortasuna, ordezkari eta helbidea jakinarazpenak jasotzeko.
- b) Sailkapena edo kaudimena.
- c) Kontratatzeko debekurik ez dutela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena eta, atzerriko enpresa izanez gero, beste adierazpen-agiri bat, Espainiako jurisdikzioaren pean jartzen direla adieraziz.
- d) Klausula-agiriak eta kontratazio-prozeduraren iragarkiak eska ditzaketen gainerako agiriak.

Proposamenak sekretupean daude eta Legeak izaera sekretu hori bermatzen du, harik eta lizitazio publikoa egiten den arte. Gutun-azal edo plika itxietan aurkeztu behar dituzte proposamenak, eta ez da haien edukia jakinarazten, esleipen-egintza publikoa egin arte (SPKL 130. art.). Lehia askea eta berdintasunezkoa bermatu nahi da neurri horien bidez. Izaera sekretuaren arau orokor horren salbuespen bakarra da enkante elektronikoa edo lehia-elkarrizketetan lehiatzaileei gainerako eskaintzei buruz ematen zaien informazioa, norberak egindako eskaintzak hobetzeko aukera izan dezaten.

Lizitatuzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake; hala ere, berriaz adierazten diren kasuetan, aldaera edo aukera anitzak aurkez ditzakete (hobekuntzak aurkez ditzakete enkante elektronikoa edo eskurapen-sistema dinamikoetako eskaintza indikatiboak hobetzeko).

Lizitatuzaileek ezin dute proposamen individual bat aurkeztu eta, aldi berean, aldi baterako enpresa-elkarte batean parte hartu, ezta aldi baterako enpresa-elkarte bat baino gehiagotan parte hartu ere. Halaber, obra publikoen emakida kontratuen kasuan, lotura juridikoak dituzten enpresek ezin dute eskaintza individualik aurkeztu bere aldetik (SPKL 129.3 art.).

Proposamen edo eskaintzaren bat aurkeztuz gero, enpresariak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiriko klausula eta xedapen guztiak, salbuespenik edo erreserbarik gabe. Horrenbestez, eskaintza egileek ezin dute erreserba edo eskusiorik txertatu kontratuetan. 1.000.000 eurotik beherako lan kontratuak eta 90.000 eurotik beherako kontratuei dagokien

prozeduretan, ardurako adierazpena egin dezake lizitatuak alegatzeko berak kontratatzeko eskakizunak betetzen dituela (SPKL 146.4 art.).

### **6.3. Esleipenduna hautatzea**

#### **a) Irizpideak**

SPKLaren xedea da kontratua ikuspegi ekonomikotik onuragarriena den eskaintzari esleitzea. Kontzeptu hori zehazteko, klausula agiritan, lizitazio-iragarkian edo hura deskribatzeko dokumentuan adierazten diren hautatze-irizpideetara jo behar da (SPKL 150 art.).

- Irizpide bakarra bada, irizpide hori prezio merkeenarena izango da. Modalitate horri enkante esaten zitzaien araubide zaharrenean. Irizpide horri jarraitzen bazaio, kontratua esleitzen duen erabakia, hasiera batean, arautua izango da; hala ere, horren salbuespena izango da kontratazio-organoak nahikoa arrazoi izatea pentsatzeko zaila izango dela kontratua betetzea, lizitatuak horren eskaintzak ezohiko baloreak edo neurritz kanpokoak jasotzen dituelako.

- Klausula-agiriekin hautatze-irizpide bat baino gehiago ezartzen dute. Irizpide horiek kontratu-xedeari lotu behar zaizkie eta, prezioaz gain, alderdiek honako baldintza hauek onar ditzakete: kalitatea, prezio itxi bati eusteko konpromisoa; ordainketak berrikusteko formula, kontratua betetzeko edo entregak egiteko epea, erabilera-kostuak ingurumen ezaugarriak edo zenbait gizarte-eskakizun betetzea (SPKL 150.1 art.).

- Proposamenak baloratzeko tarte handiagoa izango du Administrazioak, ikuspegi ekonomikotik onuragarriena den eskaintza aukeratzeko. Irizpide horiek jasotzen dituzten baldintza-orriek edo agiriekin behar bezala adierazi behar dute irizpide bakoitzak izango duen haztapen edo balio erlatiboa, edo, hori zehaztu ezin bada, irizpideak haien garrantziaren arabera zerrendatu behar dira, garrantzitsuetatik osagarrietara (ikus. 2005-10-27ko EEAJE Batzordea Espainiaren aurka).

- Derrigorrean lehenetsi behar dira zifren edo ehuneko bidez baloratu daitezkeen irizpideak; hau da, klausula-agiritan jasotako formulak aplikatuz lor daitezkeenak. Automatikoki ebaluagarriak diren irizpideak lehenesten ez badira, eta, haien lekuan, haztapen edo balio handiagoa badute balio-judizioen mende dauden irizpideek, aditu kualifikatuen batzorde bat osatu behar da balioespen subjektibo hori egiteko. Adituek ez dute kontratua proposatu duen organoko kide izan behar. Batzordea osatzen ez bada, erakunde tekniko espezializatu batek egingo du lan hori. Batzordeak edo erakunde teknikoak egindako irizpena loteslea izango da kontratazio-organoarentzat (SPKL 150.2 art.).

- Hautatze irizpideetako batzuk gizarte-klausulak izan daitezke, baldin eta kontratuaren xedeari lotzen bazaizkie. Eskaintza batekin baino gehiagok betetzen badute, berdintasunean, ikuspegi ekonomikotik abantailatsuena izateko esleipen-irizpidea, lehentasuna ematen zaie ezintasunak dituzten pertsonak edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak enplegatzen dituzten enpresei, irabazi-asmorik gabeko erakundeei, eta bidezko merkataritzaren bidea jorratzen dutenei (SPKL 4. XG).

- 2007/3 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzeko asmoz, xedatu du zenbait lehentasun-irizpide finka daitezkeela berdintasun hori lan-merkatuan sustatzeko (34. art.). Horiez gain, ingurumen-klausulak jaso daitezke klausula-agiritan, lehentasuna emateko etiketa ekologikodun produktuak ekoizten dituzten enpresei, ingurumen-auditoriak egiten dituztenei edo ingurumenarekin errespetuz jokatzeko duten enpresei. Hala ere, beti gorde behar da hautaketa-irizpide horien eta kontratu-xedearen arteko lotura.

## **b) Eskaintzen sailkapena eta kontratuaren esleipena**

Proposamenak jaso ondoren, haiek baloratu eta sailkatzeko faseari ekingo zaio. Fase horretan, kontratazio-mahaiak parte hartuko du prozedura ireki, mugatu eta publizitatedun prozedura negoziatuetan, kasu honetan izan ezik: kontratazio-batzordeari dagokionean lan hori egitea. Kontratazio mahaiaren zeregina izango da interesdunek aurkeztutako agiriak aztertu eta kalifikatzea, lizitazioan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten ala ez erabakitzeak. Dena dela, hark ezingo du prozeduratik kanporatu proposamenik erraz zuzendu daitezkeen akats formalak dituelako; halakorik ikusten bada, epe labur bat eman behar die lizitatzailerei, akats horiek zuzen dituzten.

- Kontratazio-mahaiak proposamenak baloratu behar ditu, eta, horretarako, hilabete bat izango du, gehienez, eskaintzak aurkeztu direnetik kontatzen hasita. Eskaintzak ekintza publiko batean irekiko ditu, baldin eta ez bada bitarte elektronikoak erabiltzea erabakitzen, interesdun guztiek horien berri izateko aukera izan dezaten (SPKL 144.1 art.).

Adituen batzorde baten edo espezializatutako erakunde tekniko baten txostena derrigorrezkoa den kasuetan izan ezik, kontratazio-mahaiak nahi adina txosten eska ditzake bere esleipen-proposamena egiteko. Esleipen-proposamena kontratazio organoari igorri behar dio, adieraziz erabakiaren arrazoiak, klausula-agirietan adierazten diren esleipen-irizpideak aintzat hartuz, Kontratazio-mahaiak ezin ditu baldintza-agiriak adierazitako irizpideak desitxuratu, aldatu edo osatu, ezta horiek zehaztu edo interpretatzeko aitzakiaz baliatuta ere.

- Kontratazio-mahaiak eta kontratazio organoak, azken horrek lehenaren proposamenari erreparatuta, balorazio handienetik txikienera sailkatu behar dituzte eskaintzak, eta ezin dute lizitazioa esleitu gabe utzi, proposamenen bat onargarria bada, klausula-agirian adierazitako baldintza guztiak betetzen dituelako (SPKL 151.2 art.).

- Ezingo da esleipena ikuspegi ekonomikotik eskaintza abantailatsuen egiten duen lizitatzailaren alde egin, baldin eta nahikoa arrazoi badago pentsatzeko zaila izango dela kontratua betetzea, lizitatzaila horren eskaintzak ezohiko baloreak edo neurritz kanpokoak jasotzen dituelako. Proposamen hori ezetsi baino lehen, intzidente kontrajarri bat abiarazi behar da, eta, bertan, interesdunari entzun behar zaio, bere eskaintzaren balorazioa arrazoitu dezan eta beharrezkoak izan daitezkeen zehaztapenak egin ditzan. Intzidente hori egin ondoren, kontratazio-organok uste bada eskaintzak balore ezohikoak edo neurritz gaindikoak jasotzen dituela, sailkapeneko hurrengo eskaintzari esleitu behar dio kontratua, balore mota horiek jasotzen ez dituen heinean (SPKL 152.2 art.).

- Esleipena noren alde egin erabaki ondoren, kontratazio organoak kontratuaren behin-behineko esleipena egin behar du. Erabakia lizitatzaila jakinarazi behar zaie, eta dagokion aldizkari ofizialean eta kontratazio-organoren kontratatzaile-profilean argitaratu behar da. Une horretatik aurrera, behin-behineko esleipendunak hamar egun balioduneko epea izango du klausula-agiriak adierazitako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko agiriak aurkezteko, eta, hala aurreikusita badago, behin betiko bermea eratzeko (SPKL 151.2 art.).

- Epeak igarota, eta, halakorik izan bada, behin-behineko esleipenaren aurka jarri diren errekurtsioak ezetsi ondoren, behin betiko esleipena egin behar da, baldin eta esleipendunak klausula-agirian eskatutako agiriak aurkeztu eta eskatzen den bermea eratu bada. Baldintza horiek bete ez baditu, behin-behineko beste esleipen bat egin behar da sailkapeneko hurrengo eskaintzaren alde, eta, betiere esleipendun berria ados badago. Sailkapeneko hurrengo eskaintzaren aldeko ordezkapen bera egingo da, baldin eta, araubide harmonizaturik bete behar ez duen kontratu bat betetzen hasi ondoren, hura suntsiarazten bada, eta kontratuarekin jarraitzeko asmoa badago (SPKL 151.2 art.).

- Lizitazioan parte hartu duten pertsona guztiei jakinarazi behar zaie esleipen-erabakia, Pertsona horiek informazio gehiago eska dezakete, beren proposamena zergatik ezetsi den jakiteko edo eskaintza irabazlearen ezaugarrien berri izateko. Administrazioak eskaera hori ezetsi dezake erabaki arrazoitu baten bidez, interes publikoko zioak badaude edo sekretu

komertziala eta lehia babestu behar badira. Kontratazio-organoaren kontratatzaile profileen argitaratu behar da esleipen-erabakia eta, kasu batzuetan, aldizkari ofizialetan edo Europar Batasunaren Egunkari ofizialean argitaratu behar dira, jendeak horren berri izan dezan (SPKL 151.4 art.).

### **c) Enkante elektronikoa**

Prozedura ireki, mugatu edo publizitadedun negoziatuak bultzatu ditzake Administrazioak. Prozedura horietan proposamenak aurkeztu dituzten pertsona guztiei gonbidatu behar die Administrazioak eskaintzak hobetzera, bai prezioak hobetzeko, bai eskaintzetako elementuei beste balore batzuk emateko. Lizitatzaiilek bitarteko elektronikoak erabili behar dituzte hobekuntza horien berri emateko. Gonbidapenarekin batera, formula matematiko bat erantsiko da, eskaintza berriak automatikoki birsailkatzeko (SPKL 148. art.).

Enkante hori fase jarraituetan egin daiteke, eta fase bakoitzean emango zaie parte-hartzaileei beren sailkapenaren berri izan dezaten eta lehiatzaileek eskaini dituzten prezioak eta baloreak ezagut ditzaten. Horrela jokatura, beren eskaintza hobetzeko aukera izango dute, hala nahi izanez gero. Enkantea itxiko da aurrez finkatutako itxiera-data iritsi delako, eskaintza berririk jasotzen ez delako edo haren fase guztiak agortu direlako. Kasu horietan kontratuaren behin-behineko esleipena egingo zaio, ordura arte ikuspegi ekonomikotik aurkeztu den proposamen abantailatsuenari.

## **6.4. Kontratua formalizatzea**

Behin betiko esleipen-egintzak edukiko du kontratua. Hala ere, kontratua administrazio-agiri batean formalizatuko da, bost egun baliouduneko epean, behin betiko esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, beti ere ebazpenaren kontra helegiterik jarri ez bada. Kontratua ez bada formalizatzen kontratistari egotz dakiokkeen arrazoiren batengatik, kontratua suntsiaraz dezake Administrazioak (SPKL 156.4 art.), behin-behineko bermea beregana dezake, eta kalteen eta galeren ordaina jasotzeko eskubidea izango du. Berandutza Administrazioaren errua izan bada, kontratistak kalte-ordain bat jasotzeko eskubidea izango du eta kontratua suntsiarazteko eska dezake. Errekurtsorik aurkeztu bada, kontratua 15 eguneko epean formalizatu daiteke (SPKL 156.3 art.).

Kontratua formalizatu den administrazio-agiriak erregistro publiko guztietara jotzeko aukera ematen du, baina kontratua eskritura publiko bihur daiteke, kontratistak hala eskatzen badu. Kontratuak, halaber, herri-administrazioen Kontratuen Erregistro Publikoetan inskribatzen dira, haiei buruzko informazioa bildu eta estatistikak egiteko. Presazko eta larrialdiko kasuetan izan ezik, ezin da kontratua betetzen hasi, harik eta hura formalizatzen den arte.

## **7. ADMINISTRAZIO KONTRATUAK ETA ZUZENBIDE PRIBATUKO KONTRATUAK**

### **a) Administrazio-kontratuak:**

- Sektore Publikoko Kontratuen legeak berak sektore publikoko kontratuzat jotzen dituenak dira: obra-kontratuak, obra publikoen emakida-kontratuak, zerbitzu publikoak kudeatzekoak, hornidurakoak, zerbitzu-kontratuak eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzakontratuak, betiere, zentzu hertsian herri-administrazioa den erakunde batek egindako kontratuak badira (SPKL 19.1 art.). Kontratu haiei SPKL aplikatuko zaie, eta beste beste araudi administratiboa eta zuzenbide pribatua.

- Administrazio-kontratu bereziak: Administrazio kontratugilearen jite edo berariazko jardunari lotuta daudenak, zuzenean edo berehala betetzen dutelako

Administrazio horren eskumenekoa den berariazko xederen bat eta legearen batek izaera hori emandakoak.

- Erregimen juridikoa: Administrazio Zuzenbidea aplikatu behar da kontratua prestatu, bete eta ondorioak jakin eta betearazteko. Ordezkatasunez baino ezin zaio so egin Zuzenbide Pribatuari (SPKL 19.2 art.). Administrazioak erabil ditzake SPKLak jasotzen dituen prerrogatibak eta ahalmenak, esaterako, *ius variandi* eta *factum principis*.

- Jurisdikzioa: Administrazioarekiko Auzien jurisdikzioa da kontratu horien harian sor daitezkeen auziak erabakitzeko eskuduna (SPKL 21.1 art.).

#### b) Kontratu pribatuak

- Herri-administrazioen izaera juridikorik ez duten sektore publikoko erakunde, organismo eta entitateek (enpresa-erakunde publikoak barne) egindako kontratuak dira (SPKL 20 art.).

- Izaera pribatua dute, halaber, herri-administrazioek egindako finantza-zerbitzuen, zerbitzu artistikoen, ikuskizunen eta harpidetzen kontratuek (SPKL 4.1. art.).

- Alderdiek ez dute kontratua suntsiarazi edo betearazteko ahalmenik.

- Erregimen juridikoa: SPKLa bete behar dute soilik kontratuak prestatzeko (organo eskudunak kontratatzeko erabakia hartzea, gastua baimentzea eta baldintza-agiriak nahiz kontratazio-oinarri eta irizpideak onartzea) eta horiek esleitzeko (lizitazio publiko bidez edo bide hori erabili gabe). Aitzitik, kontratu horiek Zuzenbide pribatu, zibila edo merkataritza-zuzenbidea, bete behar dute haien ondorioak eta amaiera arautzeko (SPKL 20.2 art.).

- Zuzenbide pribatuko kontratuak bereiz daitezke beren objektu edo xedeari erreparatuta. Zentzu horretan, aipatu behar da prerrogatibak dituzten herri-administrazioek kontratu pribatuak egin ditzaketela. Kontratua pribatua izango da xede publikoekin duen lotura zeharkakoa eta artekatua denean. Esate baterako, sormen edo interpretazio artistiko edo literarioko kontratuei eta aldizkarietarako, aldizkako argitalpenetarako eta datu-baseetarako harpidetzei (SPKL 4.1).

#### c) Harmonizatutako araupenaren menpe dauden kontratuak

Botere esleitzzaileek emandako kontratuak dira baina honako eskakizun hauek bete behar dituzte (SPKL 13-16 art.):

- Lanak 5.186.000 eurotik aurrerako kontratuak.

- Hornidurak eta zerbitzuetan 134.000 eurotik aurrerako kontratuak, Estatuko Administrazio edo Gizarte Asegurantzak esleitzen baditu eta 207.000 eurotik aurrera beste kasuetan.

- Diru-laguntzen bidez esleitutako kontratuak (harmonizatutako araupenen menpe dauden kontratuak), diru-laguntzek kontratuaren diru kopuruaren %50 baino gehiago estaltzen badute, lan eta zerbitzu jakin batzuk burutzen badituzte (SPKL 17.1 art.).

## 8. PRESTATZEKO EGINTZAK AURKATZEA ETA KAUTELA NEURRIAK HARTZEA

Zenbait egintza, kontratuak esleitzen ez dituztenak hain zuzen, administrazio bidean zein jurisdikzioan aurkatu egin daitezke. Horrela, kontratazio espedientea amaitzen duen egintza edo pleguak onartzen duen egintzaren aurka dagokion errekurtsioak jar daitezke. Errekurtsioa aurkezterakoan, errekurtsio egileak administrazioari kautela neurririk eska diezaioke, esaterako, egintza etetea. Bertan behera utzita, kontratuari lotutako efektuak ez direla sortuko, kautela neurria, hau da egintza etetea, amaitzen den arte.

### **8.1. Errekurtso berezia kontratazio eremuan**

Hauexek dira errekurtsoak jar daitezkeen egintzak (SPKL 40.2 art.):

- Lizitazio iragarkiak, pleguak eta kontratazio-baldintzak arautzen duten agiriak.

- Izapidezko egintzak, betiere horiek zeharka edo zuzenean esleipena erabakitzen dutenean, prozedura jarraitzeko ezintasuna zehazten dutenean edo defentsa gabezia eragiten dutenean. Badira izapidezko egintzak kontratazio mahaiak emandako egintzak lizitatuzaileak baztertzeko.

- Botere esleituzaileek hartutako esleipen akordioak.

- Izapidegintzari lotutako akatsak, lehen aipatutako egintzetan gertatzen ez badira, espedientearen instrukzioa dagokion organoari edo eskudun organoari jakinarazi behar zaizkio, akats horiek zuzen ditzan. Interesdunek, irregulartasun horietan oinarrituta, esleipen egintzaren aurka errekurtsoa jarri ditzakete. Dena dela, errekurtso hau ezingo da aurkeztu premiazko prozedurak izapidetzen direnean. Egintza guzti haiek soilik errekurri daitezke herri-administrazioek eta botere esleituzaileek ematen duten honako kontratu hauetan (SPKL 40.1 art.):

- Obra-kontratuak, obra publikoen kontratua, hornidura, zerbitzu, sektore publiko eta pribatuaren arteko laguntza kontratua eta araubide harmonizatupeko esparru-hitzarmenak .

- II Erantsian jasotzen diren zerbitzu-kontratu batzuk, 17 eta 27ren arteko mailak finkatuta hain zuzen, betiere beren balioa 207.000 euro edo kopuru horretatik gorakoak direnean.

- Zerbitzu publikoen kudeaketa kontratua, betiere enpresa finkatzeko gastuen aurrekontuak 500.000 eurotik gorakoa denean, Balio Erantsitako Zerga kenduta. Kontratuak bost urtetik gorako iraupena izan behar du.

Ohiko errekurtsoak ezin dira aurkeztu lehen aipatutako egintzen kontra, salbu eta Autonomia Erkidegoek izapidetutako zenbait prozeduretan. Edozelan, ez da derrigorrezkoa errekurtso berezia jartzea, eta esleipen-egintza administrazioarekiko auzi jurisdikzioaren aurrean aurka daiteke.

Estatuko Administrazioaren eremuan Administrazio kontratuko errekurtsoen Auzitegi Zentralari dagokio errekurtsoak ezagutu eta ebaztea. Hark independentziaz jarduteko beharra du, eta Konstituzio Auzitegiak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Kontu Auzitegiak egindako kontratuen aurkako errekurtso bereziak ere ebatziko ditu (SPKL 41.1. art.). Justizia eta Ogasun eta Ekonomia Ministroen proposamenez organo horien presidentea eta kideak izendatuko ditu Ministro Kontseiluak. Sei urte iraungo du kargua eta hiru urtero berrituko da.

Autonomia Erkidegoek ezarriko dute, beren eskumenen eremuan, organo haren funtzionamendua eta antolakuntza, independentzia eta mugiezintasuneko baldintzak aplikatuz. Errekurtso berezia tarteratzeko epea hamabost egunekoa da, aurkatuko den egintza jakinarazi den biharamunetik zenbatuta (SPKL 41.3 art.). Errekurtsoa esleipen-egintzaren aurka jartzen bada, kontratazio-espedientea automatikoki geldiaraziko da.

### **8.2. Kautela-neurriak**

Errekurtso berezia jarri baino lehen, legitimatuak diren pertsona fisiko eta juridikoek errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoaren aurrean kautela neurriak eska ditzakete. Horiek prozedurari lotutako arau-haustekak eta akatsak zuzentzea izango dute xede edo ukitutako interesei kalteak saihestekoak izango dira. Horien artean hauexek aipa daitezke: kontratua esleitzea eten edota kontratazio-organok hartutako edozein erabaki bertan behera uztea (SPKL 43.1 art.).

Eskaera aurkeztu denetik bost egunetara errekurtsua ebazteko organo eskudunak kautela-neurrirei buruzko erabaki arrazoitua hartu behar du. Eskabidea behin jasota, hau organo eskudunak kontratazio-organoari bidali behar dio, eta bi egunetan kautela neurrien inguruko ongi irizitako alegazioak aurkez ditzake. Alegaziorik egin ezik, prozedurak jarraituko du. Prozedura honetan emandako egintzen aurka ezin da errekurtsorik jarri. Hala ere, errekurtsua ebazteko prozeduratik eratorritako ebazpenak aurkatzeko aukera izango dute interesdunek.

Kautela-neurriak behin hartuta, edozein izaerako kalterik eragiten badute, ebazpenak eskatzaileari agin diezaioke kalte haiei aurre egiteko nahiko kauzio edo berme eratzeko (SPKL 43.3 art.). Prozedura bertan behera uzteak ez ditu ukituko interesdunek egin beharreko proposamenak edo eskaintzen epeak. Kautela-neurrien eskabidea errekurtsoarean aurretik aurkeztu bada, haiek eraginik gabe geratuko dira, interesdunak errekurtsu berezia epean jartzen ez badu (SPKL 43.5 art.).

## 9. ADMINISTRAZIO KONTRATUAK BETEARAZTEA

Sektore publikoen edozein entitateak kontratua behin formalizatuta, kontratua bete egin behar da, bere edukari eta adostutako baldintzei jarraiki, gauzatu behar den epea ere errespetatuz. Kontratzen duen agintaritzak hitzartutako prezioa eman behar dio esleipendunari. Alderdiak kontratuaren edukari kasu egin behar diote (SPKL 212.1 art.). “Pacta sunt servanda” araua aplikatzen da kasu hauetan, Kode Zibilak eta beste aplikagarria den legediak jasotzen duten legez.

Dena dela, Administrazio kontratuak arautzerakoan, Legeak aldaketa batzuk txertatzen ditu, kontratuaren helburu egokia lortzeko asmoz. Horrek esan nahi du, inguruabarrak eta eragozpenak gertatzen badira ere, kontratuari lotutako interes publikoak ahalik eta era onenean babestu behar direla. Jarraian, SPKLak ezartzen duen berezitasun horiek aztertzeoak izango dira. Orokorrean administrazioaren botere pribilegiatuetan oinarritzen dira.

### 9.1. Arriskua eta zortez printzipioa eta bere salbuespenak

Kontratatik etekinak jasotzen ditu, baina berak ere kontratutik eratorritako galerak onartu behar ditu. Hala ere, arau horrek modulazioak ditu, esaterako, ezinbesteko kasua dela eta, ekaitz bortitzak, lurrikarak, sute naturalak, kontratatik kalteak pairatzen dituenean. Zuhurtziagabekeriak jardun ez badu, Administrazioak kalte-ordaina ordaindu behar dio (SPKL 215 art.).

Obra publikoen kontratuan antzeko arau aplikatzen da. Lanak betearazteko atzerapenik badago eta horri ezinbesteko kasuak eragiten badio, kontratatik lanetarako epearen luzapenaren eskubidea izango du, edo, luzapenak kalteak konpondu ezin baditu, hark baldintza ekonomikoek aldaketa eska diezaioke Administrazioari. Praktikan, aseguruaren kostuak aurrezteko xede arau horrek, eskaintza ekonomikoaren beherapena ekar dezakeelako, baina Administrazioarekin kontratatzen duen pertsonaren abantaila izan daiteke. Gainera, sektore publiko eta pribatuen arteko laguntzarako kontratuetan jasotzen diren klausuletan arriskuen banaketa aurreikus ditzakete alderdiak.

### 9.2. Betearazpen akastuna eta kontratistaren atzerapena

Kontratatik kontratua eta honetan jasotzen diren entregatzeko epeak behar bezala betetzen ez baditu, Administrazioak isuna ezarriko dio, zeini jarraiki, 0,20 euro kontratuaren balioaren 1000 euro ordaindu beharko du, egun bakoitzeko kontratua bete gabe. Halaber, hori suntsiarazteko aukera dauka Administrazioak, eta ahalmen hori egikari dezake atzerapenagatik sortutako isunak prezioaren %5era iristen direnean (SPKL 212.4 art.).



Kontratua modu ezegokian bete bada, kontratuan beste isun edo zigor jaso daitezke, baina inoiz ezingo dira iritsi prezioaren %10era. Kontratua betearazteko atzerapena kontratistari egotz badakioke, Administrazioak honako aukera hauek ditzake: Kontratua suntsiaraztea edo egun bakoitzeko zigorrak ezarri, klausulei jarraiki (SPKL 212.1. art.).

Hala ere, kontratistari egotz ez dakioken zioengatik atzerapena gertatzen bada, eta hark asmoa badu luzatuko den epe batean konpromisoak betetzeko, luzapen hori eman behar dio Administrazioak, galdutako denbora berdinez, salbu eta kontratistak epe gutxiago eskatuz gero (SPKL 213.2 art.).

### **9.3. Prezioa ordaintzea**

Ordainketa oso-osorik edo zatika egin dezake Administrazioak. Hark prezioa ordaintzeko beharra dauka, kontratistari kontratua bete delako ziurtagiriak ematen dizkionetik 30 eguneko epean. Kasu batzuetan, epe hori lanen ziurtagiriak edo kontratuarekin bateragarriak direlako agiriak jasotzen direnetik zenbatu daiteke (SPKL 216.4 art.). Epe hori igarota eta Administrazioak ordaindu ez badio, kontratistak ez dauka kontratua suntsiarazteko eskubiderik, berandutze interesak eta kobratzeko kostuengatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, baizik.

Ordaintzeko berandutzak lau hilabete baino gehiago iraun badu, kontratistak kontratua bertan behera uzteko eskubidea dauka eta Administrazioari aurretiaz jakinarazi behar dio. Berandutza hogeitau hilabete baino gehiagokoa bada kontratua suntsiarazi eta kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du (SPKL 216.5 art.).

### **9.4. Hirugarrengeoi kalte-ordainak ordaintzea**

Kontratistak kontratua betearazteko ezinbestekoak diren eragiketen ondorioz, hirugarrengeoi kalte eta galera guztiak ordaindu behar dizkie. Dena dela, kalte horiek Administraziotik datozen aginduak edo berak egindako proiektuak akatsak eragiten badituzte, Administrazioak berak dauka erantzukizuna (SPKL 214.2 art.). Hirugarrengeok zalantzarik dutela saihesteko xedez, Legeak hirugarren kaltetuei Administrazioaren aurrean erreklamazioa aurkezteko ahalmena ematen die urte beteko epean. Hark kontratistari entzunaldia eman behar die eta, horren ondoren, erabakiko du nor izan daitekeen erantzulea. Erreklamazioa aurkezten egunetik aurrera preskripzio-epea eten egiten da (SPKL 214.3 art.).

Kontratista erantzulea bada, interesdunek jurisdikzio zibilar dagokion epaile eta auzitegien aurrean akzioa egikari dezakete. Administrazioa bada, ordea, administrazio-bidea agortu behar dute eta, hala erabakitzen badute, administrazioarekiko auzi-jurisdikziora jo dezakete.

### **9.5. Administrazioaren ahalmenak**

Kontratuak betearazteko ahalmenak ditu Administrazioak. Beste ordenamendu juridikoek ez bezala, ahalmen horiek Legeak berak ezartzen ditu eta ez dute klausuletan zertan agertu. Horrela, Administrazioak administrazio egintzak ematen ditu kontratuak aldatu, suntsiarazi edo betetzen delako ikuskapena gauzatzeko. Egintza horiek administrazio bidea agortzen dute eta betearaztekoak dira, eta horiek aurkatu daitezke jurisdikzio bidean (SPKL 211.4 art.).

Egintza horiek ere izapideak jarraitu behar dituzte: kontratistari entzunaldia eman behar zaio eta Zerbitzu Juridikoaren irizpena jasotzea derrigorrezkoa da. Kontratuaren interpretatu, deuseztatu edo suntsiarazteko kasuetan Estatu Kontseilua edo Autonomi Erkidegoen aholku batzorde juridikoek horren inguruko irizpena eman behar dute. Halaber, txosten hori derrigorrezkoa da, 6.000.000 euro baino gehiagoko kontratuarekiko prezioa %20 baino gehiago

igotzen delako aldaketa egitekotan (SPKL 211.3 art.). Hauexek dira, orokorki erabiltzen diren ahalmenak:

a) Kontratua administrazioak baino interpretatzen ez duenean, eta hura betearazteko zalantzak argitzen dituzenean. Honek agertzen du Administrazioa eta kontratisten arteko ezberdintasunak egoera juridikoaren inguruan. Dena dela, kontratistak interpretazioa aurka dezake. Interpretazio egintza betearaztekoa da eta gatazka konpontzen den bitartean, kontratua betearaz daiteke.

b) Kontratua betearazteko jarraibideak eman diezazkioke Administrazioak kontratistari. Obren kontratuan, adibidez, jarraibide horiek Administrazioak izendatutako zuzendariak ezarri behar dizkio eta bera arduratuko da obrak zaindu eta ikuskatzeaz.

c) Obren emakidan eta zerbitzu publikoen emakidan, Administrazioak polizia ahalmena egikari dezake, hots, hark legedi sektoriala betetzen da edo zerbitzua modu egokian ematen dela ziurtatu eta kontrola dezake. Horri erantsi behar zaio Administrazioak jardun dezakeen ikuskatzeko ahalmena, konprobatzeko zerbitzuak, instalazioak, lokalak eta ondasunak behar bezala erabiltzen diren. Hornidura kontratuan Administrazioak agin diezaioke kontratistari produktuen gaineko kontrolak eta saiakerak burutzeko.

d) Tarifak ezartzeko ahalmena, zerbitzuen kudeaketa kontratuetan gehienbat. Erabiltzaileek ordaindu beharreko prezioa finka dezake Administrazioak, kontratuak jasotzen duenaren arabera eta finantza orekari kasu eginez.

e) Administrazioak ados dezake zerbitzua bereganatzea, kontratistak beharren ez betetze larria burutzen duenean eta horrek obra edo zerbitzua eteteko arriskua dakarrenean. Administrazioak behinik behin ematen du zerbitzua beste enpresa bat zerbitzua esleitu arte.

f) Administrazioak kontratua geldiaraztea erabaki dezake, interes publikoei lotutako zioak direla eta. Kasu horietan kontratistari kalteak konpondu behar dizkie, kalte-ordaina ordainduz (SPKL 220 art.). Kontratua geldiarazteak denbora luzea iraun badu (sei, zortzi edo hamabi hilabete kontratuaren arabera), kontratistak kontratua suntsiarazteko eskubidea izango du.

### **a) Kontratuak aldatzea**

Espedientean arrazoitzen diren interes publikoko betebeharrak berriak edo ezin aurreikusitako zioetan oinarritzen direnean, Administrazioak kontratuak alda ditzake (SPKL 211.3 art.). Kontratuak denbora luzean betetzen diren heinean, horien inguruabarrak alda daitezke edo horiek ekarritako zailtasunak bultzatzen du berrikuntzak edo kontratu baldintzen aldaketa partzialak egitera. Batzuetan, aldiz, kontratuan agertu diren akatsak konpontzeko xedez burutzen dira aldaketak. Edozelan, legearen iruzurra ekar dezake kontratua erabat aldatzea beste deialdi edo prozedura bat ez irekitzeak.

Administrazioak deritzon “*ius variandi*” egikari dezake, baina horrek ez du esan nahi berme guztiak kontratistei eta hirugarrengei ez dizkiela eman behar. Alde batetik, Legeak prozedura bermeak jasotzen ditu, esaterako, kontratistari entzunaldia eman behar dio eta aholku organoei irizpena eskatu behar die.

Bestetik, kontratistak Administrazioak ezarritako aldaketei kasu egin behar die, salbu eta ondoko kasuetan [SPKL 107.3 c) eta d) art.]:

- Aldaketa horiek kontratuaren lehenengo prezioaren %10 baino gehiagokoa ekartzen ez badute.
- Aldaketa horiek proiektua edo prestazioaren funtsezko aldaketa ekartzen ez badute.

Lehen aipatutako inguruabarrak gertatu ez bada, kontratistak Administrazioari kontratua suntsiaraztea eska diezaioke. Hauxe da kontratistaren aukera, eta berak egikaritzen ez bada, suntsiaraztea ez da automatikoki ematen.

Azkenik, Kontratua aldatzeak eragiten duen kalteak ordaindu behar dio Administrazioak kontratistari, berari kostu gehiagori aurre egin behar badizkio. Konpentsatzeko ahalmenak badauka bere jatorria: kontratuaren finantza oreka mantendu, kontratua sinatu zen momentuan aurreikusi ziren gastuak kontuan hartuz (SPKL 216.6 art.).

#### **b) Kontratuaren finantza-oreka**

Kontratuari lotutako interes publikoen helburuak administrazio ahalmenak ez ezik kontratista beren beharrak betetzeko gaitasunak ere sustatzen dituzte. Izan ere, obra eraikitzeko epeari kasu egin, erabiltzeko modu egokian mantendu eta zerbitzua adostutako baldintzetan eman beharko ditu kontratistak. Hari bermeak eman behar zaizkie prestazioak burutzeko, haien kostua aldatu denean kontratuaren aldaketa dela eta.

Aldaketa hura Administrazioaren aginduan edo beste arrazoietan oinarrituta, Kontratua sinatzen zen momentuko baldintza ekonomiko berdinei eutsi behar die kontratistak. Baldintza horiek alderdiei eragin zien kontratua sinatzea. Horregatik, edozein galerak edo kostuen igoerak oreka hura eragozten badute, kontratuaren baldintza ekonomikoak ere aldatu behar dira ekuazioa edo oreka berreskura daitezzen. Hurrengo neurriak har daitezke:

a) Prezioen berrikuspena, ezinbesteko kasuetan edo “*ius variandi*” egikaritzeagatik eska zekizkiokeen kalte-ordainak Administrazioari.

b) Kontratuaren kostuak igotzen direnean edo kontratistari galerak sortzen zaizkionean, administrazioak erabakiak hartzen dituenetan eta horiek kontratuari ezin zaionean lotu. Zio honek “*factum principis*” izena dauka. Batzuetan, Administrazioak badauka produktu batzuen prezioak gora egiteko eskumena dauka eta horiek erabiltzea ezinbestekoa kontatua betearazteko. Halaber, enpresei ingurumenari lotutako eskakizun gehiago ezar diezazkioke eta horiek ez ziren aurreikusita aurretiaz, hots, kontratua sinatzen den momentuan. Finean, Administrazioaren ondarezko erantzukizuna da kalte-ordaina ordaintzeko beharraren oinarria.

c) Doktrinak ere ezinbesteko arriskuaren teoria onartu du. Ezin aurreikusitako inguruabarrak direla eta, ezinbesteko kasuarekin zerikusirik ez daukatenean, kontratistak kontratuaren finantza oreka eusteko eskubidea dauka, ulertzen delako kontratua bera hausten dutela. Arrisku eta zortez printzipioaren salbuespena da, eta kontratistaren abantaila da, horrek inguruabar horiei aurre egiteko aseguruaren kostua aurreztu baitezake. Dena den, jurisprudentziak interpretazio hertsia egin du kasu horietaz. Hark eskatzen du inguruabar berriak ezin zirela aurreikusi kontratua sinatzerakoan eta kontratistaren errurik gabe, uste ona jardun duelakoan (AGE 1999ko apirilak 30an).

d) Jurisprudentziak ere “bidegabeko aberastea” doktrina aplikatzen du, Administrazioa behartuz kontratuan jasotzen ez diren diru kopuruak eta prestazioak, betiere horiek ezinbestekoak direnean bere helburua betetzeko. Prestazio horiek Administrazioari etekinak eta kontratistari kostu erantsia eragin behar dizkiete eta uste onez eta Administrazioaren onespenez betearaz daitezke (AGE 1999ko urriak 7an).